

2018KO UZTAILAREN 23AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO URTARRILAREN 29KO ETA MARTXOAREN 19KO BILKUREN AKTAK).

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN HITZARMENA.

3.- 2017KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

4.- EUDEL. UDALHITZ HITZARMENARI BURUZKO PROPOSAMENA.

5.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEAN LAGUNTZA BANAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

6.- KULTUR ETA KIROL ELKARTEEN ARTEAN DIRULAGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO URTARRILAREN 29KO ETA MARTXOAREN 19KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2018ko urtarrilaren 29ko eta martxoaren 19ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Imanol Garmendi Iruretagoiena zinegotziak adierazten du, urtarrilaren 29ko bilkurako galde-erantzunen atalean, liburutegiko argazki-bilduma liburuan jasotako argazkiaren aipamenean, argazkia “ez litzatekeela egon beharko” adierazi zutela. Zentzu honean, Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), bilduma horretan herritarrek helarazitako argazkiak jaso zirela zehazten du, inongo kribarik burutu gabe.

Imanol Garmendi Iruretagoiena zinegotziak adierazten du, martxoaren 19ko bilkurako galde-erantzunen atalean, plan paisajistikoari buruzko aipamenean, ibai ertzetako baranda konpontzeko dagokion aurrekontu-saila jasotzeko beharra aipatu zutela.

Ez da bestelako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN HITZARMENA.

M^a Pilar Elorza Intsausti zinegotziak (Zegama Lantzen), “etxeoko laguntza zerbitzua” finantzatzeko helburuarekin, Eudel erakundetik helarazitako agirien berri ematen du.

Horren arabera, Gipuzkoako udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) Gizarte Politikako Departamentuko ordezkariak eratuak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruz lortutako akordioak betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagokion Udalak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredu adostu da. Horrenbestez, menpeko pertsonen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko xedez udalek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin orain sinatuta duten hitzarmena ordezkatu du.

Hitzarmenaren arabera, Foru Aldundiak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari egindako ekarpenaren %25a zerbitzuan egin beharreko hobekuntzak finantzatzeko bideratuko da, hain zuzen, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak onetsitako hobekuntzetarako.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan hobekuntza horiek egiteko, sarritan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal-araudia eta dagokion zerga-araudia aldatu behar izaten dira. Lan hori errazte aldera, 2018ko otsailaren 20an, EUDELen Gipuzkoako Lurralde Batzordeak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzeko udal-araudiaren eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen prezio publikoaren araudiaren proposamena onetsi du. Gipuzkoako udaletako gizarte-zerbitzuetako langileek eratuak lantalde tekniko batek prestatu du, EUDELe koordinatuta.

Horrenbestez, udal bakoitzak aukeran izango du egoki iruditzen zaizkion Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren hobekuntza guztiak edo batzuk bere gain hartzea, edota ez hartzea. Horren arabera, zerbitzuaren finantziazioa handiagoa edo txikiagoa izango da. Gainera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudian eta/edo prezio publikoaren araudian jasota utzi beharko da, 2018an zerbitzuan hobekuntzak sartu direla egiaztatzeko, aipatutako hitzarmenaren seigarren klausulan jasotako testuari jarraiki.

Ondorio horietarako, dokumentu hauek helarazi dira:

- 1.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko xedez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatuko den lankidetzaren hitzarmena.
- 2.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua hobetzeko irizpideak.
- 3.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal-araudia.
- 4.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren prezioaren araudia.

Adierazitako agiriak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako alorretik horiek onartzea eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren hobekuntzak bere gain hartzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztaba idatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehen.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko xedez Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagokion Udalak sinatuko duten lankidetzaren hitzarmena onartzea, honako xedearekin:

“ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2018ko ____ren __ (a)n egindako bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

.....,Udaleko.....eta ordezkaria, 2018ko.....renko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

AZALTZEN DUTE

I.- **Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.**

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

IV.- Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabilzailentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezko zatitza jo dute lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziazio sistema arautze aldera.

V.- **Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzen jarraitzea, baina Foru Aldundiaren parte hartzea zehaztuko da denborari dagokionez, hitzarmen honen III. eranskinean jasotako erabakiak ezarritakoari jarraituz.**

Hori guztia klausula hauen arabera

KLAUSULAK

LEHEN. – Helburua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta XXX Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak alde aurretik adostuta.

BIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoa zerbitzuaren estalduran.

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerriri guztiei zuzendutako

Foru Aldundiaren gehieneko ekarpena II. eta III. eranskinetan azaltzen dena izango da.

Hiruhileroko ekarpena urtekoaren % 25aren baliokidea izango da.

Adierazitako zenbatekoek foru ekarpenaren gehieneko kopurua finkatuko dute eta, beraz, kopuru hori ez da aldatuko, nahiz eta zerbitzuaren jarduerak igoeraren bat izan.

HIRUGARREN.- Ordu bakoitzeko tarifaren gehieneko kopurua.

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

- **Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa:**
18,87 €
- **Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €**

Udalak emandako zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziatzat hartuko da 2018. urterako udalean 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua eta 2019ko urtarrilaren 1ean dagoena 2019. urterako, eta urtarrilaren 1ean dagoen urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.

LAUGARREN.- Zerbitzuaren erregulazioa.

Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

BOSGARREN.- Ordaintzeko prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, seigarren klausulan ezarritakoak, aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

SEIGARREN.- Foru finantzaketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

a) Hiruhileroko fakturazioa:

Eskaintako zerbitzuen ordu kopurua hirugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.

b) Koordainketa:

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta:

Udalerrri guztiei zuzendutako Aldundiaren ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatuz ateratzen den zenbatekoa da, baldin eta ekarpenen baturak gainditzen badu hiruhileroko ekarpen osoa, bigarren klausulan zehaztutakoa.

Koefiziente hori zatiketa honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

e) Aldundiaren oinarritzko ekarpena:

Ekarpena izango da d) atalek ateratzen den emaitza - Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:

Aldundiaren aurrekontuaren arabeko ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla-eta Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerrri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:

- **2018. urtea:** hobekuntzak udal erregelamenduan edo ordenantza fiskalean jasota edo, bestela, idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez edo Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten enpresen kontratuetan hobekuntzak jasota.
- **2019. urtea:** hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko

da, horretarako eraturako batzorde teknikoak proposatuta.

g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

Udalerrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.

Udalerri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipaturako zenbateko globalaren arabera udalerri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulatu da.

h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:

f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanatuko da udalerrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.

i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.

j) Ateratzen den foru ekarpena:

e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.

ZAZPIGARREN.- Abonu sistema.

a) Likidazio aldia:

Urteko azken hiruhilekoaren likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura egiten denez, likidazio aldiak aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta uneko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoak hartuko ditu.

b) Likidazioa:

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarrizko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla-eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:

1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarrizko ekarpenaren arabera, erabat.

2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

c) Bidalketa epeak betetzea:

Liquidazio sistemak udalerri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, zortzigarren klausulan aurreikusitako epea amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.

ZORTZIGARREN.- Informazio sistema.

a) **Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordinketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:**

1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa; hobekuntzen ezarpen eraginkorra; eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.

3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea)
- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak) (BOE 313 zk., 2013/12/31, I. atala, 107.128 orrialdea)

b) **Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, Extranet SAD.**

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

c) **Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:**

a) lehen hiruhilekoa: apirilak 30

b) bigarren hiruhilekoa: uztailak 31

c) hirugarren hiruhilekoa: urriak 31

d) laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 31

BEDERATZIGARREN.- Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen xede diren klausulen jarraipena egiteko, batzorde bat eratu ahal izango dela adostu dute bi alderdiek, non ordezkariak parekidea izango duten.

HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak.

Hitzarmena amaitu edo iraungiko da arrazoi hauetakoren bat baldin badago:

- a) Bi aldeen arteko adostasuna.
- b) **Aldeetako batek uko egiten badio hitzarmenari, beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena amaitutzat emateko aurreikusi den data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.**
- c) **Aldeek hitzarmenean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badituzte.**

HAMAİKAGARREN.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki beteta.

HAMABIGARREN.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta 2017ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko irailaren 30 bitarteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.

Eta adierazitakoarekin ados daudela frogatzeko, parte hartzaileek agiri honen bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrarekin, goian aipatutako lekuan eta egunean.

XXXXKO UDALA

I. ERANSKINA HOBEKUNTZAK ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUAN

Zenbakia / Número	Deskribapena / Descripción	Ponderazioa / Ponderación
1	Zerbitzua ezartzea urteko egun guztietan / <i>Implantar el servicio durante todos los días del año.</i>	% 35
2	Prezio publikoaren gehieneko kopurua 15,00 eurotan ezartzea astelehenetik ostiralera / <i>Fijar el importe máximo del Precio Público a 15,00€, de lunes a viernes.</i>	% 25
3	Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea ezartzea: 4 ordu edo gehiago / <i>Fijar una Intensidad máxima del servicio de 4 horas o más.</i>	% 15
4	Urgentziaz sartzeko modalitatea ezartzea / <i>Establecer una modalidad de acceso urgente.</i>	% 12,5
5	Beste zerbitzu mota batzuk ezartzea, eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsonen zabaltea. / <i>Establecer otras modalidades del Servicio así como la extensión del servicio a personas no dependientes.</i>	% 12,5

II. ERANSKINA

Etxeko Laguntza Zerbitzurako foru ekarpenaren zenbatekoak

- 2018 eta 2019. urteak :
 - Urtekoa 2018: 9.620.533,00€
 2019: 8.192.461,00€
 - Hiruhilekoa Urteko zenbatekoaren % 25 izango da

III. ERANSKINA

Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako finantza-doiketari buruzko erabakia, Erakunde arteko Mahaian adostutakoa.

MARÍA DEL MAR ZABALA MARDARASek,
EUDEL Asociación de Municipios Vascos -
Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari
nagusiak

MARÍA DEL MAR ZABALA MARDARAS,
Directora General de Euskadiko Udalen
Elkartea - Asociación de Municipios Vascos
(EUDEL)

ZIURTATZEN DU

Ezen EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeak, 2017ko uztailaren 7an eginiko bileran, eta eskumenak banatzeko dagoen legezko ezarpenean oinarriturik Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalen arteko finantza-fluxuen banaketa berri bati dagokionez, jarraian datorrena erabaki zuela, aldeko botoa agertuz Beasaingo alkate Aitor Aldasoro jaunak, Elgoibarko alkate Ane Beitia andreak, Donostiako zinegotzi Jaime Domínguez-Macaya jaunak; Aiako alkate Nekane Arrizabalaga andreak; Zestoako alkate Josetxo Mendizabal jaunak; eta Eibarko alkate Miguel de los Toyos jaunak, eta aurkako botoa agertuz Oñatiako alkate Mikel Biain jaunak; Elgetako alkate Iraitz Lazkano jaunak; eta Azpeitiko alkateorde Estitxu Elduairen andreak:

- GFAk bere gain hartuko du udal zahar egoitza guztiak bere gain hartzeak sorturiko gastu guztien zenbatekoa, 7,5 milioi euroren inguru.
- 2017-2019 aldirako Etxez Etxeko Laguntzaren zerbitzuaren kofinantziatzea; 2019 urtean %50ekoa izango delarik. Horretarako, GFAREN gehieneko ekarpena 8.192.461 eurokoa izango da. Gaur egungo ekarpenaren biderdizatean era progresiboan egingo da ondorengo progresioari jarraiki:
 - 2017: gaur egungo kopuruari 903.861 euroko kenketa egingo zaio
 - 2018: 903.861 euro horiei 1.418.067 euro batuko zaizkio, hala gaur egungo kopuruari 2.321.928 euroko kenketa egingo zaio
 - 2019: 2.321.928 euro horiei 1.428.072 euro banatuko zaizkio, denera 3.750.000 euroko doitzea lortuko delarik.
- Gipuzkoan Etxez Etxeko Laguntzaren zerbitzuaren hobetzea sustatzeko, Aldundiaren ekarpenaren %25 Gipuzkoako Zerbitzu Sozialen

CERTIFICA

Que la Comisión Territorial de Gipuzkoa de EUDEL, en reunión celebrada el día 7 de julio de 2017, y en relación con una nueva distribución de flujos financieros entre Diputación Foral y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa en base al reparto competencial legalmente establecido, acordó lo que a continuación se indica con el voto afirmativo de D. Aitor Aldasoro, Alcalde de Beasain, Dña. Ane Beitia, Alcaldesa de Elgoibar, D. Jaime Domínguez-Macaya, Concejal de Donostia/San Sebastián, Dña. Nekane Arrizabalaga, Alcaldesa de Aia, D. Josetxo Mendizabal, Alcalde de Zestoa, y D. Miguel de los Toyos, Alcalde de Eibar, y con el voto en contra de D. Mikel Biain, Alcalde de Oñati, D. Iraitz Lazkano, Alcalde de Elgeta, y Dña Estitxu Elduairen, Tnte. de Alcalde de Azpeitia:

- La asunción por parte de la DFG de todos los gastos derivados de la asunción de las residencias municipales estimados en 7,5 M.
- La cofinanciación del SAD durante el período 2017-2019 llegando este último año al 50%. Para ello, la aportación máxima de la DFG se fija en 8.192.461 euros. El reajuste de la aportación actual se realizará de manera progresiva de acuerdo a la siguiente distribución:
 - 2017: A la cantidad actual se le resta 903.861 euros
 - 2018: A los 903.861 euros se le sumará 1.418.067 euros, alcanzando la cantidad de 2.321.928 euros
 - 2019: A los 2.321.928 euros se le sumará 1.428.072 euros sumando un reajuste total de 3.750.000 euros
- Con la finalidad de promover la mejora del servicio de SAD en Gipuzkoa, un 25% de la aportación foral se destinará a la financiación de las mejoras que se

Bigarrena.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua hobetzeko irizpideak onartzea, honakoaren arabera:

“ ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN HITZARMEN BERRIRAKO IRIZPIDEAK

1. Hitzarmenaren indarraldian ordainduko diren kopuruak:

Urtekoak:

2017: 11.038.600 €
2018: 9.620.533€
2019: 8.192.461€

Hiru hilabetekoak:

2017: 2.759.650,00€
2018: 2.405.133,25€
2019: 2.048.115,25€

2. Oinarrizko ekarpena eta hobekuntzeri lotutako ekarpena:

Aurrekontuaren %75a oinarrizko ekarpena bideratuko da, kontuan izanda:

- Benetan emandako ordu kopurua.
- Kopagoa deskontatuta.
- Orduaren gehieneko koste hauekin:
 - i. Lan eguneko ordua: 18,87 €
 - ii. Igande eta jai egunetako ordua: 22,66 €.
- Ordu kopuruaren mugarik gabe.
- 2017 urterako kontuan hartuko diren orduak mendekotasun egoeran dauden pertsonen eskaintakoak izango dira soilik. 2018tik aurrera, Batzorde Teknikoaren proposamena aintzat hartuta, bestelako kolektiboak ere barneratuko dira arreta jasotzaile gisa, dokumentu honen 6. atalean aurreikusten diren hobekuntzei jarraituz.

Aurrekontuaren %25a zerbitzuaren hobekuntzak sustatzera bideratuko da.

Salbuespena: 2017an %100 oinarrizko ekarpena bideratuko da.

3. Ordainketa modua:

- GFAk urteko aurrekontuaren %100 ordainduko du.
- Horretarako, hobekuntzen zatian dirua soberan geratuko balitz, soberakin hori udalen artean banatuko litzake.
- Kalkuluaren oinarri gisa aurreko urtearen 4. hiruhilekoak hartuko dira, eta dagokion urteko lehen 3 hiruhilekoak.
- Urteroko aurrekontua 4 zati berdinetan banatuko da.
- Aurreneko hiru ordainketa oinarrizko ekarpena bideratuko dira bere osotasunean.
- Laugarren ordainketa hobekuntzei lotutako ekarpena bideratuko da bere osotasunean.

4. Hobekuntzei dagokien zatiaren soberakinaren birbanaketa:

Hobekuntzei dagokien %25aren zati bat banatu gabe geldituko balitz, soberakin horrekin honela jokatuko da:

- Hobekuntzak egiaztatu dituzten udalen artean banatuko da soilik, bakoitzari dagokion hobekuntzen ehuneko bertikalaren arabera.

5. Kalkulu orokorra.

Kontuan izanda hiruhileko bakoitzeko foru ekarpen guztia aurretik ezarrita dagoela, udal bakoitzak jasoko duen diruan eragina izango du beste udalekin gertatzen denak. Honek esan nahi du:

- Likidazioa ezin izango da itxi udal guztien informazioa jaso arte.
- Datuak epearen barruan bidaltzen ez dituzten udalek ez dute ezertxo ere jasoko hiruhileko horretan, eta ezingo dute atzerapenik jaso ondorengoetan.
- Udal jakin batek bere aktibitatea handitu eta hobekuntzak ezarri arren, gerta daiteke udalak diru gutxiago jasotzea baldin eta beste udalekiko duen kokapen erlatiboan atzera egingo balu.

6. Foru finantziarioaren bidez EEL zerbitzuan hobekuntzak sustatzeko proposamena.

Ondorengo lerroetan zehazten ditugu Batzorde Teknikoan gure iritzian adostasun handiena jaso duten hobekuntza proposamenak, guzti-guztiak herritarrentzat **Zerbitzua erakargarriagoa izatera zuzenduak daudelarik**: merkeagoa, jarraigoa, ordu aldetik intentsitate handiagokoa, larrialdi egoeretara egokitua, modalitate berriekin eta behar berriei irekia. Honekin batera, foru finantziarioaren zati aldakor batean elementu bakoitzak izan beharko lukeen pisua adierazten dugu, zati hori %100 gisa hartuz.

1. **Erabiltzailearen gehieneko ekarpen ekonomikoa (prezio publikoa) zerbitzu orduko 15€tan finkatzea lan egunetan.**

JUSTIFIKAZIOA: Batzordearen partaide diren udal teknikari gehienak gaur egun ezarrita dagoen batez besteko prezioa gutxitzearen aldekoak agertu dira: proposatzen diren orduko gehieneko prezioak 12€ eta 15€ artean daude, eta honekin batera hileko ordu kopuru jakin batetik aurrera deskontuak proposatzen dira.

Gaur egun Gipuzkoa osorako batez besteko kopagoa orduko 3€koa da, hori benetako kostearen %16a delarik. Neurri honen helburua da kopuru hori baino gehiago ordaindu dezaketenek eta 19€ (hori da gaur egun prezio publiko zabalduena) ordaindu nahi ez dituztenek erakartzea.

PONDERAZIOA: %25

Ebaluazio adierazleak:

a. Argi geratzea Udal Araudian edo Zergen Ordenantzan.

2. **Arreta egutegia urteko 365 egunetara zabaltzea.**

JUSTIFIKAZIOA: gure ustetan neurri hau funtsezkoa da zerbitzuaren kalitatea hobetzeko bidean, eta bereziki kasu jakin batzuetan non ez den beharrezkoa orduen intentsitate handia baina zerbitzua behar-beharrezkoa den goizean gutxieneko laguntza bat bermatuko bada.

Gaur egun, udal guztiek ez dute eskaintzen zerbitzua asteburuetan eta jai egunetan. Hau ez dator bat dauden arreta beharrek, eta beraz aukera honen eskaintza orokortu egin behar litzateke.

PONDERAZIOA: %35

Ebaluazio adierazleak:

a. Argi geratzea Udal Araudian.

b. Erakunde Arteko Mahaian zehaztu beharreko adierazlea, hobekuntzaren benetako ezarpena ikusita.

3. **Gehieneko orduen intentsitatea 4 orduraino igotzea.**

JUSTIFIKAZIOA. Batez besteko intentsitatea askoz txikiagoa den arren, kontuan hartu behar dugu badirela kasu jakinak zeinetan, denboraldi baterako edo era iraunkorrean, gaur egun ezarrita dagoen muga (gehienetan 3 ordukoa) gainditzen duten arreta beharrak ematen diren. Adibide gisa hor ditugu ospitaleko alta jaso dutenak eta familiaren laguntza izateko aukera txikia edo inolakoa dutenak.

PONDERAZIOA: %15

Ebaluazio adierazleak:

- a. Argi geratzea Udal Araudian.
- b. Erakunde Arteko Mahaian zehaztu beharreko adierazlea, hobekuntzaren benetako ezarpena ikusita.

4. Premiazko sarrera bide bat ezartzea.

JUSTIFIKAZIOA. Sarritan, eguneroko jardunetarako laguntza beharra ustekabeen sortzen da, dela aldi baterako edo betirako; hori dela eta, zerbitzua "egun batetik bestera" jasotzen hasteko modalitate bat ezarri beharra dago, eta horrek esan nahi du egin beharreko tramiteak txikiagotzea (kopagoaren kalkulua, menpekotasunaren balorazioa, eskaeraren tramitazioa...) eta gerorako uztea, zerbitzua jasotzen hasi eta handik egun batzuetara atzeratuz, esate baterako 15 egunetara.

PONDERAZIOA: %12,5

Ebaluazio adierazleak:

- a. Argi geratzea Udal Araudian.
- b. Erakunde Arteko Mahaian zehaztu beharreko adierazlea, hobekuntzaren benetako ezarpena ikusita.

5. Zerbitzuan barne bestelako modalitateak ezartzea (Gaueko gainbegiratzea, familiako zaintzaileen arnasaldia, gizarte lagun-egitea, etab.) eta estaldura adineko pertsonak ez diren kolektiboetara zabaltzea (buruko gaixotasuna, desgaitasuna duten pertsonak, adingabeak dituzten familiak).

JUSTIFIKAZIOA. Gaur egun baditugu zerbitzuaren oinarritzko edukiak "zabaltzen" dituzten udalerririk bestelako ildo "osagarriak" eskainiz, beraien errealitatea eta jasotzen dituzten eskaerak kontuan hartuz. Gure ikuspegitik, EEL zerbitzuaren sendotasun handienak bere balio-aniztasuna eta malgutasuna dira (edo izan behar lukete) eta garai hauetan Zerbitzua jasaten ari den zailtasun batzuei aurre egiteko bidea sendotasun horiek indartzean datza.

PONDERAZIOA: %12,5

Ebaluazio adierazleak:

- a. Argi geratzea Udal Araudian.
- b. Erakunde Arteko Mahaian zehaztu beharreko adierazlea, hobekuntzaren benetako ezarpena ikusita.

6. Hobekuntzak egiaztatzeak aukerak:

Ezarpenaren lehenengo urte honetan (2018) EEL zerbitzuan txertatu diren hobekuntzak udal araudietan argi eta garbi agertzearen bitartez ebaluatuko dira (edo, bestela, idazkariaren ziurtagiriarekin edo EEL zerbitzua ematen duten enprekin sinatutako kontratazio pleguetan hobekuntzak ezartzearekin).

2019tik aurrera, Erakunde Arteko Mahaian zehaztu beharreko adierazleak ere erabiliko dira, zeinak hobekuntzaren benetako ezarpena kontuan izango duten.

7. Helburuen jarraipena eta ebaluazioa

2018 urtean zehar adierazleen proposamen bat landuko da, proposatutako helburuen betetzearen ebaluazioa egin ahal izateko.

Hirugarrena.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal-araudia hasiera batez onartzea, honako xedearekin:

“AURKIBIDEA

ARRAZOIEN AZALPENA

LEHEN TITULUA

- 1.artikula.- Xedea
- 2.artikula.- Aplikazio eremua
- 3.artikula.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa
- 4.artikula.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak

BIGARREN TITULUA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

- 5.artikula.- Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak.
- 6.artikula.- Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua
- 7.artikula.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

II.KAPITULUA.- ERABILTZAILERAK

- 8.artikula.- Erabiltzaileak zehaztea
- 9.artikula.- Zerbitzuan sartzeko baldintzak
- 10.artikula.- Erabiltzaileen eskubideak
- 11.artikula.- Erabiltzaileen betebeharrak

III.KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1.ATALA.- ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

- 12.artikula.- Eskatzaileen zerrenda
- 13.artikula.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria
- 14.artikula.- Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa
- 15.artikula.- Izapidetzea
 - A) Beharrianen ebaluazioa
 - B) Gizarte Txosten proposamena
- 16.artikula.- Ebazpena
- 17.artikula.- Premiazko egoerak

2.ATALA.- ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA

- 18.artikula.- Zerbitzuaren onespena

IV.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

- 19.artikula.- Jarraipena eta ebaluazioa
- 20.artikula.- Egokitzapena

V.KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

- 21.artikula.- Zerbitzua etetea eta iraungitzea

- 21.1 Zerbitzua aldi batez etetea
- 21.2 Zerbitzua iraungitzea

VI.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

- 22.artikula.- Prezio publikoa
- 23.artikula.- Finantzaketa
- 24.artikula.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

XEDAPEN INDARGETZAILEA

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

I.ERANSKINA: ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

II. ERANSKINA: EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA
ARRAZOIEN AZALPENA

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealtate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakatu, bizi-itzaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremanetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonen beren mendetasun mailakatu laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehenetsutakoak da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideek, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrezko oinarritzko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.

Horrela, eguneroko bizitza jasagarriago egiteko, babes eta laguntza-zerbitzuak eskuragarri izateaz gain, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoerak jasaten dituzten edo mendetasun egoeran dauden pertsonen beren etxeetan eta komunitateetan haiek zaintzeko zerbitzua izatea ezinbestekoa da, askotariko beharrezkoak egokitzeko eta denbora tarte ezberdinetan zatifikatzeko gai izango dena, larrialdiak bere gain hartuko dituen eta zerbitzuaren beharretan eman litezkeen aldaketei bizkortasunez erantzun ahalak diena. Zentzu horretan, etxez etxeko laguntza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartean eta familian. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitateko eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

Xede horretarako, araudi honek 2017. urtean Gipuzkoako udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaian adostutako itunak jasotzen ditu, honako gaien inguruan; intentsitate malguagoak, zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil

ezberdinetara sarbidea izatea.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ez du Administrazio honetan laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk hasteko aukera alde batera uzten, bide berritzaileak izan daitezkeenak pertsonen eta beren bizitzarako beharrezanaren artean oreka bat izateko; betiere, eskumena duen organoaren oniritzia izanda.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko etkez etxeko laguntza zerbitzurako sarbidea arautzen du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean eta arreta pertsonalizaturako plan bat landu denean.

LEHEN TITULUA

1. artikulua. Xedea

Arautegi honen xedea da Zegama udalerriko etkez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Zegamako udalerrian emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

3. artikulua. Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

4. artikulua. Etkez etxeko zerbitzuaren helburuak

Zerbitzuak helburu hauek ditu:

- a) Autonomia galerari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.
- b) Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.
- c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrezan antzematea.
- d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.
- e) Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.
- f) Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaindzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaten beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako.
- g) Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaindzaile nagusiaren ordezkari jardutea, tarteka, hura falta denean.
- h) Adingabeen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean.
- i) Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetzaren giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurrea hartzea.

BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA – ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak

- 1) Informazioa: Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.
- 2) Jarraipenaren balioespena: Arreta Pertsonalizaturako Planaren aldiro ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.

3) Etxeko laguntza: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

3.1. ELIKADURAREKIN loturikoak

- Otorduak antolatzea eta prestatzea, horretarako erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne
- Janaria erostea
- Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea

3.2. JANTZIEKIN loturikoak

- Arropa etxean garbitzea
- Arropa lehortzen jartzea
- Arropa gainbegiratzea
- Arropa antolatzea eta gordetzea
- Arropa etxean lisatzea eta tolestea
- Arropa erostea
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea

3.3. ETXEKO INSTALAZIOAK MANTENTZEAREKIN loturikoak

- Etxea txukuntzea
- Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
- Hautsa kentzea
- Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea
- Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea
- Komuna garbitzea
- Sukaldea garbitzea
- Leihoetako kristalak garbitzea
- Zaborra zaintzea eta ateratzea
- Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea
- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea

4) Laguntza PERTSONALA: Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa: a) zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk; b) ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Barne sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

4.a. Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk;

4.a.1. MUGIKORTASUNAREKIN ETA INGURUNEAN MOLDATZEAREKIN loturikoak:

- Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekitik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
- Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

4.a.2. GARBITASUN PERTSONALAREKIN loturikoak:

Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).

4.a.3. JATEAREKIN loturikoak:

- Jateko laguntza
- Edateko laguntza

- Janaria berotzea
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea

4.a.4. JANTZIEKIN loturikoak:

- Jantzeko eta erantzeko laguntza
- Eguneroko arropa prestatzea

4. b) Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak. Bereziki, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.

4.b.1) Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

Hautzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

4.b.2) Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak.

- Eskariak egiteko, gutunak jasotzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.
- Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin...; errekurtsok izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab.

4.b.3) OSASUNAREKIN loturikoak:

Medikuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.

Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

4.b.4) Zaintzarekin loturikoak:

Adingabeentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adingabearen zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

5) Gizarte laguntza: gizarte zerbitzuen berriazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonak aukera duten profesional kualifikatu batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko. Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeari edo hura garatzeari buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziazko pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:

- instrumentala (baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte/familia sareetara –familia, lagunak, komunitatea– harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).
- emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan...).
- hezkuntzako (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarritzko jarduerak, jarduera instrumentalak nahiz jarduera aurreratutako egiteko trebetasunak hartzea, jokatibideak aldatzea...).
- harremanei loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak edo/eta harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).

Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrezkoen arabera. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrezkoaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak planteatu litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).

6. Beste jarduera OSAGARRI EDO EZOHIKO BATZUK:

- Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.
- Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.
- Egoera berezietan erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jarduerak batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jarduerak horiek berriaz baimenduz gero.

7. ZERBITZUAZ KANPOKO jarduerak:

Ondorengo jarduerak etxez etxeko laguntza zerbitzuetik kanpokotzat jotzen dira:

- Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza personala.
- Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.
- Prestakuntza espezifiko eskatzen duten osasun arloko jarduerak, hala nola, indizioak jartzea, intsulina edo heparina ematea, tentsioa hartzea, zundak eta zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifiko eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak.
- Etxean konponketa handiak egitea: margotzea, etab.

6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua

Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiarentzat; mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona aldi batez EELZn sartuz edo zerbitzu horretan ordura arte eskaintzen zen laguntzaren intentsitatea aldi batez areagotuz.

7. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etxez etxeko laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian (ingurunean) emango da, Zegamakollerrian.

1) Laguntza emateko egunak

Oro har, urteko egun guztietan emango da zerbitzua, jarraibide teknikoaren arabera.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrezko banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. Gehienez ere, asteko hogeita zortzi orduko laguntza emango da. Gehieneko hori malgutasunez banatu ahal izango da, baldin eta profesionalen irizpideen arabera malgutasun hori beharrezkoa bada erabiltzaileak etxean jarraitzea errazten edo/eta ahalbidetzen duten zaintzak osatzeko edo/eta ordezkatzeko.

Orduak 15 minutu baino gutxiagokoak ez diren tarteetan banatuko dira, eta sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du; fakturatutako ordu edo tarte bakoitza lanean egindako denborari dagokiola ulertuz.

3) Laguntzaren ordutegiak

Zerbitzuaren ordutegia malgua da; nagusiki, 07:00etatik 22:00etarako ordutegiaren barruan emango da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balioespen teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

- Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrezko kontuan hartuta.
- Etxeko laguntzari eta gizarte laguntzari dagokien zerbitzuetarako, udal teknikariek zerbitzua ematen duen enpresarekin batera zehaztuko dute ordutegia, zerbitzu horiek ematen dituzten langileen ordutegien arabera.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileak: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak:

- Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.
- Familiak zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.
- Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.

- Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.
- Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak baimenduak.

Eskaria talde batek eginez gero, taldeko kide guztiek bete beharko dituzte zerbitzuan sartzeko baldintzak.

Zerbitzuaren titular bat izendatuko da, onuradun guztiak ordezkatzeko; titularra hil eginez gero, egoitza zentro batean sartuz gero edo bizitokia aldatuz gero, bizikidetzaren unitateko beste onuradun batek hartuko du titulartasuna.

Titularitasuna aldatzean, berriro ebaluatuko dira beharizanak, gizarte-familia egoera eta egoera ekonomikoa.

9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak

Aurrez aipatutako talde horietako bateko kidea izateaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:

9.1. Baldintza administratiboak:

- Eskaria egiten den datan Zegamako udalerrian erroldatuta egotea, eta hartan erroldatuta jarraitzea. Teknikariek hala proposatuz gero, baldintza hau betetzetik salbuetsita geldituko dira senitartekoen etxeetan txandaka bizi diren pertsonak.

9.2. Beharizanari buruzko baldintzak:

- Dagokion etxebizitzan bizitzea, izan hura norberarena nahiz zaintzaile nagusi gisa diharduen senitarteko batena.
- Etxebizitzaren edo ingurunearen egoerak ez eragozteko edo zailtze erabiltzailea han egotea eta ez jartzea arriskuan erabiltzailea nahiz etxez etxeko langileak.
- Hala behar izanez gero, etxebizitzan baldintza egokietan bizitzeko behar adina laguntza izatea, EELZren prestazioarekin batera.
- Osasun edo gizarte-osasun erakundeetan iraunkorki arreta jasotzea eskatzen duen osasun egoeran ez egotea.
- Gaixotasun infekzio-kutsakor edo buru gaixotasun bat izanez gero, uko ez egitea dagokion tratamendua hartzeari.
- Jokabide asaldurarik izanez gero, etxez etxeko langileentzako arriskutsua ez izatea.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua araberak, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak dira:

- EAEko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan zerbitzua jasotzea.
- Zerbitzu ematea eta haren intentsitatea aldatzeko eskaria egitea
- Zerbitzuaren baldintzen aldaketan berri alde aurretik jasotzea.

11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaz gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta egongo dira:

- Zerbitzuan parte hartzen duten profesionalen lana erraztera, haiek laguntzera eta zuzen eta errespetuz tratatzera.
- Egoera sozio-ekonomikoa balioesteko beharrezko dokumentuak gizarte langileari ematera eta balioespina nahiz jarraipeneko bisitak egiteko etxean sartzen uztera.
- Zerbitzua jaso bitartean gaixotasun infekzio-kutsakor bat harrapatuz gero, udal teknikariei horren berri ematera, etxez etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak hartu ahal izan ditzaten.
- Osasun egoerak hala eskatuz gero, behar den orotan joatea osasun erakundeetara.
- Aurrez hitzartu gabeko inolako prestaziorik ez eskatzera, eta ez eskatzera, halaber, udal ebazpenak barne hartzen ez dituen pertsonentzako arreta.
- Etxez etxeko zerbitzuko langileak zerbitzua ematen ari diren bitartean etxean egotera, bestelako berariazko baimenik eta agindu teknikorik ezean.
- Zerbitzua etetea dakarten lekualdatzeen berri alde aurretik ematera.
- Udal teknikariei behar adinako aurrerapenaz jakinaraztera eskaintzen den zerbitzua ematean inolako aldaketarik eragin lezaketean bat-bateko gorabehera pertsonalak.
- Etxez etxeko langileen esku uztera esleitutako etxeko lanak egiteko eta laguntza pertsonala emateko beharrezko tresnak eta materialak.
- Etxez etxeko langileek beren egitekoak behar bezala ez betez gero udal zerbitzu teknikoei irregulartasun horien berri ematera.
- Dagokion epean ordaintzera emandako zerbitzu bakoitzari dagokien prezio publikoa/tasa, nahiz eskatzaileari egotz

lekizkiokeen arrazoiak direla medio gauzatu gabe gelditutako zerbitzuei dagokiena, baita zerbitzua aldi batez eten izanaren ondorioz zerbitzuaren erreserbari dagokiona ere.

- Udal zerbitzu teknikoek jakinaraztera bere egoera sozio-ekonomikoan gertatutako aldaketa adierazgarri oro.
- Udal langile teknikoek jakitera ematera prezio publikoa/tasa ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari mendekotasunaren balioespina edo/eta ezgaitasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzera.

Betebehar horietakoren bat huts eginez gero, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura abian jarriko da, arautegi honetan araututako prozedurarekin bat etorruta.

III. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

12. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehenetsua antolatze baliatuko den tresna. Lehenetsua, zerbitzuan sartzeari buruz I. eranskinean zehaztutako baremoa aplikatuz lorturiko puntuazioaren arabera finkatuko da.

13. artikulua.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria

Arautegi honetan araututako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, alde aurretik eskaria egin behar dute interesdunek edo, hala dagokionean, bizikidetzaren unitateko kide guztiek, inprimaki formalizatua erabiliz. Ondoren, organo eskumendunari helaraziko zaio inprimakia, eskatzaileak sinatuta. Udalak xede horretarako berariaz gaitutako erregistroetan edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan edo erregistroetan aurkeztu beharko da eskaria.

Interesdunak prozesuaren edozein unetan bertan behera utz dezake eskaria, idatziz. Hala eginez gero, artxibatu egingo da espedientea.

Era berean, gizarte langileak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatze baliatuko den tresna, baldin eta eskatzaileak edo haren ordezkariak hitzez adierazten badu eskaria bertan behera utzi nahi duela.

14. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskariarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira¹:

- NANaren fotokopia, edo beste edozein nortasun agiri baliokiderena.
- Familia liburua, baldin eta bizikidetzaren unitatean 18 urtetik beherako adingaberik badago.
- Mendekotasun edo/eta ezgaitasunaren balioespina, baldin eta beste autonomia erkidego batean egina bada eta espedientea oraindik Gipuzkoako Foru Aldundira aldatu gabe badago.
- Medikuntza txostena, gizarte zerbitzuek beharrezkoa dela iritzi gero.
- Zaintzaren onuraduna adingabea edo ezgaitasuna duen pertsona bat izanez gero, legez edo izatez, ordezkariaren egiaztatapena (adingabeak badira: familia liburua, gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien edo tutorearen izendapenaren dokumentua; ezgaitasuna duten pertsonak badira: tutorearen izendapenaren ebazpena edo izatezko zaintzailearen dokumentua, ereduari jarraituz egina)
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak (zerbitzuaren onuradun diren pertsona guztiei dagokien dokumentazioa).
 - Eskaria egin aurreko lau urteei buruzko ondasun higigarrien eta higiezinaren zinpeko aitortza.
 - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren azken aitortzenaren fotokopia, edo, bestela, Ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak aitortpena egiteko derrigorotasunik ez duela egiaztatzen duena (ez da agiri hori aurkeztu beharrik izango aitortutako azken ekitaldian Gipuzkoako zergaduna izanez gero).
 - Eskaria egiteko unean edozein kontzepturengatik jasotzen ari diren diru sarreren egiaztatapena: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazio publiko, pribatu nahiz atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak, etab.
 - Kapital higiezinaren etekinengatik diru sarreren ziurtagiria, halako etekinik balego.
 - Banku posizio eguneratuen eta kapital higigarriaren etekinen ziurtagiria.
 - Gipuzkoako lurraldetik kanpoko jabetzen katastro balioaren eta titulartasunaren egiaztatapena.
 - Ezarritako prezioari dagokien hileko ekarpena ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.
- Udaleko gizarte zerbitzuek interesekotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Eskatzaileak bere egoera balioesterik nahi ez badu edo modu frogagarrian egiaztatzen ez badu, ulertuko da uko egiten diela itxaron zerrenda –halakorik balego– osatzeko baremoan bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari, baita zerbitzua ordaintzeko eskaintzen diren laguntzei ere. Hala, zerbitzua jasotzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaintzera behartuta egongo da.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrak salbuesita daude aurreko agiriak aurkeztetik, baldin eta administrazioaren esku badaude. Xede horretarako, dagokion agiria noiz eta zer organoren aurrean aurkeztu zituzten adierazi beharko dute interesdunek. Udalak agiri horiek eskuratu ezin izanez gero, berriro eskatu ahal izango diote interesdunari horiek aurkezteko.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo akatsen bat badago, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio dokumentazioa osatzeko edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez badu, eskariari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko gainerako kideek baimena ematen diote udalari datuak egiaztatzeari edo dagozkion datuak biltzeari begira egin beharreko izapideak egiteko. Arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eta, hala dagokionean, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko besterik ezingo dira erabili datu horiek.

Datuak faltsutzeak eta ezkatutzeak zerbitzuaren eskatzaileak eskatzaile izaera galtzea ekarriko dute, horregatik egotz lekizkiokkeen beste erantzukizun batzuen kalterik gabe.

15. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrezanaren ebaluazioa eta gizarte txosten-proposamena egiteko, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean bildutako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

- Balioespina eta ebazpen proposamena eskatzailearen etxebizitzari (edo, hala dagokionean, txandakako etxebizitzari) dagozkion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langintzako teknikariek egingo dituzte.
- Langile teknikoek dokumentazioa aztertuko dute, eta elkarrizketak, etxeko bisitak eta egoera bakoitzean zer beharrezan dauden balioesteko egin beharreko izapide guztiak egingo dituzte.

B) GIZARTE TXOSTEN-PROPOSAMENA

Gizarte langintzako zerbitzu teknikoek arauzko gizarte txosten bat egingo dute, honako alderdi hauei buruz:

- Zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea eta eskaria aurkeztea.
- Hala dagokionean, baldintzak betetzetik salbuesteko proposamen arrazoitua.
- Eskatzailearen eta, hala dagokionean, bizikidetzaren unitatearen egoera pertsonal, familiar eta sozialak.
- Esku-hartzearen onuradunak, emango den zerbitzu mota, asteko ordu kopurua eta egunak, proposatzen den zerbitzuak barne hartzen dituen egitekoak eta haren iraupena.
- Hala dagokionean, ezohiko zerbitzuak emateko proposamen arrazoitua.
- Eskatzaileak zerbitzua jasotzeko ordaindu beharreko orduko prezioa.
- Hala dagokionean, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

16. artikulua. Ebazpena

Eskaria aztertu eta balioespina egin ondoren, udaleko organo eskumendunari helaraziko zaio, hark ebazpen arrazoitua eman dezan; ebazpen horretan, eskatutako zerbitzuan sartzeko onetsi edo ezetsiko da.

Ebazpena emateko bi hilabeteko gehieneko epea dago eskaria udal erregistroren batean sartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskarien akatsak zuzentzea eskatuz gero; jakinarazpena egiten denetik eskatutakoa betetzen denera bitartean iraungo du etenaldiak, edo, hala badagokio, emandako epea igarotzen denean, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia balioesteko txostena eskatu behar zaionean, bestela, baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epean berriazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazpena emateko derrigortasunaren kalterik gabe, eskaria ezetsi dela ulertu ahal izango da, eta interesdunak aukera izango du aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua ezartzeko.

Ebazpen positiboa izanez gero, honako alderdi hauek adierazi behar ditu:

- Eskaria zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzea.
- Prestazioaren onespena, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

Ebazpen negatiboa izanez gero, eskaria ezesteko arrazoiak azaldu beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Arautegi honetako 9. kapituluan zerbitzuan sartzeari buruz adierazitako baldintzak ez betetzea.
- Eskatzaileak, bere kasa edo/eta senitarteko edo/eta beste baliabide pertsonalen bidez behar bezala estali ahal izatea eskarian argudiatutako beharrak.
- Zerbitzua emateko eskumena beste administrazio publiko batena izatea, prestazio motagatik edo eskatzailearen bizitokia kokatuta dagoen tokiagatik.
- Zerbitzua emateak erabiltzaileari nahiz zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisikoak edo/eta psikikoak ekar diezazkiokeela balioestea.
- Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Ezespenezko ebazpena legez ezarritako epeetan eta formalitateak betez jakinarazi beharko da, eta aukerako berraztertze errekurtsua ezarri ahal izango da haren kontra organo eskumendunaren aurrean, baita zuzenean haren aurka egin ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenaren aurrean, legez ezarritako epe eta baldintzetan.

Onespenezko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere helaraziko zaio, hark ebatzitakoa betetzen has dadin jakinarazpenetik 7 egun naturaleko epearen barruan.

17. artikulua. Premiazko egoerak

Aparteko izaeraz, premia larri edo muturreko premia duten kasuei erantzuteko, prestazioa berehala ematen hastea proposatuko dute udaleko gizarte zerbitzuek.

Udaleko gizarte zerbitzuek zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzuaren premiazko izaera, eta jakinarazpena jasotzen duenetik 24 orduko epearen barruan zerbitzua gauzatzeko hasiko da erakunde hori.

15 egun naturaleko epean, gehienez ere, premiazko eskaritzat hartutako eskaria ohiko prozeduraren arabera izapidetuko da.

2. ATALA. ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA.

18. artikulua. Zerbitzuaren onespena

1. eranskinean adierazitakoaren arabera jasoko da zerbitzuaren onespena.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Gizarte langintzako teknikariek jarraipen iraunkorra egingo dute zerbitzuak onuradunen beharrekiko duen egokitasunari buruz; jarraipen horren bidez, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte, eta proposatutako helburuak lortzen ari diren ebaluatuko dute onuradunekin lankidetzan. Jarraipena egiteko, egoki irizten zaionean onuradunaren etxera bisitak egitea eta aldian-aldian etxeko etxeko laguntzaileekin harremana izatea aurreikusten da.

Aldizkako ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak hala eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta nahiz protokolo eta kontratuaren ezarritako moduan.

20. artikulua. Egokitzapena

Zerbitzuan sartu ondorengo hiru hilabeteak erabiltzaileak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko alditzat hartuko dira. Erabiltzailearen erreferentziatzeko gizarte langileek edo/eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak etengabe izango dute harremana erabiltzailearekin, gorabeheraren bat sortuz gero egokitzapena lortzeko bilatu beharreko konponbideak bilatzeko.

Harekin batera irtenbideak bilatzen saiatu arren erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzailerara egokitzeko zailtasunak daudela edo zerbitzuak erabiltzailearen beharrak behar bezala estaltzen ez dituela ikusiz gero, udaleko gizarte zerbitzuek proposamen bat egingo dute, zerbitzuari dagozkion langile teknikoek edo/eta zerbitzua kudeatzen duen enpresak aurrez egindako txostena kontuan hartuta.

Proposamen hori erabiltzaileari helaraziko zaio, eta 15 eguneko tartea emango zaio alegazioak aurkezteko.

Udaleko gizarte zerbitzuek, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo diote organo eskumendunari, hark ebazpen arrazoitua eman dezan. Erabiltzailea zerbitzutik ateratzea ebatziz gero, beste bide bat eskainiko zaio, halakorik balego.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

21.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etetea erabakiko da, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Erabiltzaileari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaie ebazpen horren berri, legeak ezarritako epe eta baldintzak beteta.

Arrazoi hauengatik etengo da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- 10. artikuluan erabiltzaileei ezarritako betebeharren batean huts eginez gero, hutsegite hori zerbitzua iraungitzeko arrazoia ez bada. Ofizioz abian jarriko da etena.
- 9. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat aldi baterako galduz gero. Ofizioz nahiz erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.
- Ezusteko arrazoiak direla medio erabiltzailea etxean ez badago, honako egoera hauetan, esaterako:
 1. Erabiltzailea erietxean ingratzea.
 2. Erabiltzailea gizarte-osasun baliabideetan sartzea.
 3. Medikuarengana edo/eta tratamendua hartzera joan behar izatea.
 4. Senitartekoen etxeetan txandaka bizi izatearen ondorioz beste etxebizitza batera joan behar izatea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Etenaldia 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

- 45 eguneko gehieneko aldian, honako egoera hauetan:
 - Oporraldia.
 - Etxeko laguntza eskatzea eragin zuten egoerak aldatzea eta laguntza behar izateko arrazoia desagertzea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Profesionalen aburuz egokia izanez gero, luzatu egin ahal izango dira epe horiek.

Zerbitzua eteteko arrazoia erabiltzailea etxean ez egotea bada eta zerbitzua eteteko finkatutako epea igarota erabiltzailea etxera itzultzen ez bada, zerbitzua iraungi egingo da.

21.2. Zerbitzua iraungitzea

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzuaren bajak zehaztuko dira, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Onuradunari eta zerbitzu emaileari emango zaie ebazpen horren berri.

Arrazoi hauengatik iraungiko da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- Erabiltzaileak uko egitea.
- Zerbitzua emateko aurreikusitako epea amaitzea.
- Erabiltzailearen heriotza.
- Erabiltzailea beste udalerrri batera lekualdatzea, senitartekoen etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.
- Erabiltzailea beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua emateko arrazoia desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu beharreko datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.
- Zerbitzuaren jarraipenerako eskatutako dokumentazioa ez ematea.
- Egoera sozio-ekonomikoan aldaketaren bat gertatuz gero 30 eguneko epean horren berri ez ematea.
- Kasuaren arabera finkatutako aldi baterako etenaren epea amaitutakoan etxebizitzara ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Arautegi honetan ezarritako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz huts egitea.
- Bizikidetzaren unitateko kideen eta gizarte langintzako teknikarien edo zerbitzua ematen duten langileen arteko lankidetzarik eza. Arrazoi hau argudiatzeko, aldeaz aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duten langileentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Arrazoi hau argudiatzeko, aldeaz aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena jaso ondoren erabiltzaileak berriro zerbitzua jaso nahi izanez gero, beste eskari bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutako moduan izapidetuko da.

Zerbitzua iraungiz gero erabiltzaileak zerbitzuari dagokion ordainketaren bat egin gabe edukiz gero, berriro zerbitzua eman aurretik ordaintzea eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22. artikulua. Prezio publikoa

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak kobratuko dituen prezioak etxeko etxeko laguntza zerbitzua esleitzean zehaztuko dira. Organo eskumendunak urtero eguneratuko ditu prezioak, hala dagokionean, zerbitzua esleitzeko baldintzetan zehaztutako igoeren arabera.

Ez zerbitzua ematen duten langileek, ez enpresa esleipendunak, ezingo dute onartu inolako dohaintza edo ordainketa gehigarririk, aurreko paragrafoan ezarritakotik kanpo. Enpresa esleipendunaren ardura izango da baldintza hori betetzen dela zaintzea.

Aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz erabiltzaileak ordaindu beharreko etxeko etxeko zerbitzuaren prezioa unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da.

23. artikulua. Finantzaketa

Zerbitzuak honela finantzatuko dira:

- Onuradunak zerbitzua finantzatzen parte hartu beharko du. Hain zuzen ere, bere gain hartu behar du bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta organo eskumendunak emandako ebazpenean ezarritako zenbatekoari dagokion ekarpena ordaintzeko konpromiso sinatua. Nahitaezko betebeharra izango da zerbitzua ematen hasteko.
- Zegamako udalak ordainduko du orduko prezioaren zenbatekoa, onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta. Onuradunak ordaindu beharreko ekarpena 24. artikuluan, II. eranskinean zehaztutako ekarpenen baremoaren eta arlo honi buruz indarrean dagoen udal arautegiak dioenaren arabera kalkulatu da.

24. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Arautegi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko dute; ehuneko hori kalkulatzeko, beren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko da, II. eranskinak eta arlo honi buruz indarrean dagoen udal arautegiak diotenaren arabera.

Erabiltzaileen ekarpena elementu horien arabera finkatuko da, II. eranskinean eta gai honi buruz indarrean dagoen udal arautegian zehaztutakoari jarraituz.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsu edo ezkutatu gero, artxibatu egingo da zerbitzua jasotzeko eskaria, edo, erabiltzailea aldeaz aurretik laguntza jasotzen ari bazen, iraungi egingo da zerbitzua, gertaera horietatik erator litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Udalak prezioa ordaintzeko laguntzaren bat edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari,

diru laguntzak banatzeari buruzko udal ordenantzan diru laguntzak itzultzeko araututako prozedura abian jarriko da.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala dagokionean, haien legezko ordezkariak behartuta daude familia unitatearen errentan, ondarean edo kideen kopuruan gertatutako aldaketak edo banakako ekarpenak zehaztean eragina izan dezakeen edozein gorabehera udalari jakinaraztera, 30 eguneko epean. Horren ondoriozko aldaketa ekonomikoek hurrengo hilabetean izango dute eragina.

Erabiltzaile bakoitzari dagokion banakako ekarpenak aldatzea eragin lezakeen aldaketaren bat gertatuz gero erabiltzailearen baldintzetan edo egoeran, ofizioz berrikusiko da ekarpena, udal zerbitzu teknikoek edo erabiltzaileak nahiz haren ordezkariak hala eskatuta, horri buruzko udal arautegian ezarritako moduan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileek beren etxe eta ingurune komunitarioan jarraitzeari begirako esperientzia/jarduera/prestazio berri eta berritzaileak abian jarri ahal izango dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei banatzeko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi hau etxex etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko eskari berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGETZAILEA

Indargabe gelditzen dira arautegi honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo haiei kontra egiten dieten maila bereko nahiz apalagoko arau guztiak.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Alkatetzari ahalmena ematen zaio arautegi hau aplikatu eta garatzeko eman beharreko arauak eman ditzan.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak eta diagnostiko sozialaren arabera zerbitzurako sarbidea izateko lehentasunak finkatzen ditu.

Zerbitzuan sartzeko baremoari dagokionean, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badie, laguntza beharrian handiena duen eskatzailearen egoera baino ez da aztertuko, egoera ekonomikoaren alderdiari dagokionez izan ezik; hain zuzen ere, egoera ekonomikoa zehazteko, bizikidetzaren unitateko kide guztien per capita errenta kontuan hartuko da.

BAREMOAREN EGITURA:

ALDERDIAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Oinarritzko jarduerak)	<u>0-30</u>
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Jarduera instrumentalak)	<u>0-10</u>

Bizikidetza eta gizarte sostengua	0-20
Etxebizitza edo bizitokia	0-10
Egoera ekonomikoa	0-30
Guztira	0-100

I. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (OINARRIZKO JARDUERAK)

Pertsonak beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzea jarraitzeki begira eguneroko bizitzako oinarriko jardueretarako (jan, jantzi, norberaren garbitasuna...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Balioespen horretarako, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, jarraian adierazten den moduan:

Laguntza beharraren BAREMOA	Puntuak	
Balioetsi ezinezkoak	0	<input type="checkbox"/>
MBB 0-22 puntu	5	<input type="checkbox"/>
MBB 23-49	10	<input type="checkbox"/>
MBB 50-74	20	<input type="checkbox"/>
MBB 75-100	30	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (30 puntu gehienez)		

II. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (JARDUERA INSTRUMENTALAK)

Pertsonak beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzea jarraitzeki begira eguneroko bizitzako jarduerak instrumentalak egiteko (etxetresna elektrikoak erabili, erosketak egin...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Jarduerak instrumentalen BAREMOA	Puntuak
Etxetresna elektrikoak (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua...) eta interkomunikazioko sistemak (irratia, telefonoa, telebista) erabiltzea.	BAI: 0
	EZ: 1
Etxeko lanak (hautsa kentzea, erratza pasatzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, xurgagailua, lisatzea...).	BAI: 0
	EZ: 1
Erosketak (elikagaiak, botikak, arropa, etxetresna elektrikoak...).	BAI: 0
	EZ: 1
Jana prestatzea (otorduak prestatzea, prestatutako jana berotzea).	BAI: 0
	EZ: 1
Ingurunean moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, herrian egunez/gauetz ongi orientatzea).	BAI: 0
	EZ: 3
Izapide ekonomiko-administratiboak eta osasunekoak (dirua ateratzea, ordainagiriak moldatzea, medikuarenera joatea...).	BAI: 0
	EZ: 3
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (10 gehienez)	

III. BIZIKIDETZA ETA GIZARTE SOSTENGUA:

Pertsonak bere beharrianak betetzeko duen laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea, eta honako aldagai hauen arabera egiten da balioespena:

- Bizikidetza egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Adineko beste bizikide batzuekin (senitarteko edo lagunekin) edo bestelako senitarteko edo lagunekin bizi den.
- Sare informalk baduen ala ez, eta, edukiz gero, sare horretaz baliatzeko dituen aukerak (senitarteko edo/eta lagunak), eta sare horrek zer laguntza mota ematen dituen.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Gizarte-familiaren BAREMOA	Puntuak	
1.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona edo adingabea, babesgabetasun/bertan behera uzte egoeran dagoena: tratatu fisiko edo psikikoak, abusu ekonomikoa, bertan behera utzita edo oinarrizko arretako zabarkeria larriko egoera.	20	<input type="checkbox"/>
2.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte laguntzarik gabea: ez duelako familia edo gizarte ingururik, ohiko zaintzaileak arrazoizko objektiboak direla medio arretarik ematerik ez duelako, edo familia gatazka edo/eta desestrukturazio larria dagoelako. / Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak.	16	<input type="checkbox"/>
3.- Bakarrik bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sare oso murrizta izanik bere laguntza beharra estaltzeko inola ere aski ez diren aldiak aldiko laguntza batzuk lortzen dituen. / Zama handia duten edo gizarte egoera egongaitzean dauden familiak.	12	<input type="checkbox"/>
4 – Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasuna/ezgaitasuna duen norbaitekin bizi dena), familia edo/eta gizarte sareak laguntza batzuk ematen dizkion arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	8	<input type="checkbox"/>
5 – Beste norbaitekin (mendekotasuna duen norbaitekin) bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sarea eduki arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	4	<input type="checkbox"/>
6 – Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, erraz baliatzeko moduko familia edo/eta gizarte sarea duena.	0	<input type="checkbox"/>
GIZARTE-FAMILIA EGOERAREN PUNTUAZIOA (20 puntu gehienez)		

IV. ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarrien balioespina egitean datza, ikusteko zenbateraino baldintza dezaketen pertsona bere kasa moldatzea, ingurunearen kontrola, aukeratzeko ahalmena eta ingurune horretan laguntza edo/eta sostengua jasotzeko aukera.

Irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira kontuan hartzen diren aldagaiak, honako baremo honen arabera:

Etxebizitzaren edo bizitokiaren BAREMOA	
IRISGARRITASUNA	
A. Eraikina, kanpotik	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ez du irisgarritasun arazorik. ➤ Eskailerak igo edo jaitsi edo arkitektura oztoporen bat gainditu behar du etxebizitzara iristeko // Herrigunetik urrun dago, eta oinarrizko baliabideetara iristeko zailtasuna
B. Eraikina, barrutik	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ez du irisgarritasun arazorik. ➤ Eskailerak daude atarian, igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek saihesteko sistemarik // Ez du igogailurik.
C. Etxebizitza, barrutik	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ez dago arkitektura-oztoporik. ➤ Mugitzeko eta moldatzeko zailtasuna dakarten arkitektura-oztopoak daude, ez du segurtasun edo/eta egokitzapen neurririk.
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+ B+ C)	

BIZIGARRITASUNA	
➤	Ez du bizigarritasun arazorik.
➤	Mantentze egokia falta du.
➤	Egiturazko arazoak ditu (hezetasuna, komunik ez, sukaldetik ez; espazio aski ez; itokinak; instalazio elektriko eta sanitario kaskarra).
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA	

EKIPAMENDUA		
	BADAGO	BADABIL
Sukaldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ur berogailua/termoa/galdara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Berogailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Garbigailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hozkailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Telefonoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
➤	Oinarrizko ekipamenduari dagozkion elementu guztiak ditu, eta ongi dabilta.	
➤	Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu ditu, gutxienez, edo elementu guztiak izan arren bate bat ez dabil, baina konpontzeko aukera dago.	
➤	Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu baino gutxiago ditu, eta/edo baten bat ez dabil eta dago erabiltzaileak konpontzeko edo berrezartzeko aukerarik.	

EKIPAMENDUA, GUZTIRA

ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (10 puntu gehienez)

V. EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa balioesteko, errenta hartuko da kontuan. Lanbide arteko gutxieneko errentaren %230etik behera, diru sarreraren 10. maila bereizten dira, puntu gehienekotik hasi eta puntu gutxienera:

Egoera ekonomikoaren BAREMOA Per capita errenta	Puntuak	
≤%75 LAGS	30	<input type="checkbox"/>
>%75-78	27	<input type="checkbox"/>
>%78-81	24	<input type="checkbox"/>
>%81-94	21	<input type="checkbox"/>
>%94-110	18	<input type="checkbox"/>
>%110-125	15	<input type="checkbox"/>
>125-140	12	<input type="checkbox"/>
>%140-155	9	<input type="checkbox"/>
>%155-170	6	<input type="checkbox"/>
>%170-190	3	<input type="checkbox"/>
>%190 LAGS	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez)		

II. ERANSKINA

EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Honako elementu hauek balioetsiz kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru sarrera garbiak:

- Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo bizi arteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.
- Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzeko, ez dira diru sarrera modura hartuko:

- Etxebizitza Prestazio Osagarria, PEKen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.
- Seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.
- Lanbide zentro batean jarduteagatik jasotako haborokin ekonomikoak.
- Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko

arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikinik balego, diru sarrera giza hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

- Ebazpen judizial bidezko banantzeagatiko konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatiko ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.
- Zerbitzuen aldibereko erabileragatiko ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

Ondarea onuradunen kapital higigarri nahiz higiezin guztia da, eskaria egin aurreko bost urteak kontuan hartuta; kanpoan geldituko da saldutako kapital higiezina, haren etekin ekonomikoa dagoeneko kapital higigarrian sartuta egonez gero.

- Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korronteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarterako errentak; arte objektuak, zaharkinak eta bestelako objektu balioetsuak.
- Kapital higieztzat jotzen dira landa eta hiri izaerako ondasunak. Ohiko etxebizitza (garaiea eta trastelekua barne) ez da ondorio hauetarako kapital higieztzat hartuko.

Era berean, ez da zenbatuko ondare higiezina, baldin eta haren gaineko titulartasuna %100ekoa ez bada.

3. Bizikidetzaren unitateak hartuko da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena.

4. Libreki erabiltzeko kopurua

Arlo horretan indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da libreki erabiltzeko kopuruaren zenbatekoa, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopurua aintzat hartuta, hala dagokionean.

Zerbitzu motaren, onuradunaren edo onuradunen ondarearen eta haien errentaren arabera, jarraian adierazitako moduan zenbatuko dira:

- Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza mistoa): Bizikidetzaren unitateko kideen arabera kapital higiezina eta higigarria eta per capita sarrera garbiak.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzua. Onuradunaren kapital higiezina eta higigarria. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen ondarea batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

C) Ezarritako orduko prezioari onuradunek egin beharreko ekarpenaren kalkulua:

Unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da erabiltzaileak arautegi horretan ezarritako gehieneko prezioari egin beharreko ekarpena; erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa hartuko da horretarako kontuan, A) atalean aurreikusitakoari jarraituz kalkulatu.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluek eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen (Toki Araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duena) 56. artikulua agintzen dutenari jarraiki, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, aipatu espedientea aztertu eta nahi duenak egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako udal erregelamendua behin betiko onartutzat emango da.”

Laugarrena.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren prezioaren araudia onartzea, honakoaren arabera:

1.- Esparrua

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:

a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.

b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.

c) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkariaren pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkariaren pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.

d) Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokkeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Prezio publikoa

Gehienezko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

Laneguneko ordua	15.-€
------------------	-------

4.- Ekarpenen koadroa

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

EAEAP sarrerak	LAGS sarrerak	Ekarpena
EAEAPren \leq %120	LAGSren \leq %75	%1,5
>%120-125	>%75-78	%4
>%125-130	>%78-81	%8
>%130-150	>%81-94	%15
>%150-175	>%94-110	%24
>%175-200	>%110-125	%35
>%200-225	>%125-140	%48
>%225-250	>%140-155	%61
>%250-275	>%155-170	%74
>%275-300	>%170-190	%87
EAEAPren >%300	LAGSren >%190	%100

5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
---------------------	---------------------------

1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren %XXri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren %XX gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren %XX gainerako kideetako bakoitzagatik.

7.- Kobrantza

Zerbitzua hileroko kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.”

3.- 2017KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2017ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2018ko ekainaren 27ko 123 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2017ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

4.- EUDEL. UDALHITZ HITZARMENARI BURUZKO PROPOSAMENA.

EUDEL-EK UDALHITZ hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruz, zirkularra bidali du, Udalei, zenbait neurri har ditzaten gomendatuz.

Zentzu horretan, Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak xedatutakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaie EAEko udalei:

“- Aipatutako 18.Bi artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

- Bestetik, 18.Bi artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar.

- Aurreko 18.Bi artikulua laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari

kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko* aurrekontuan superabita duten EAEko udalerriei gomendatzen diegu soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu-aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikuluaaren laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez. 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabitik izan ez duten udaletan, EUDELe gomendatzen du soldata-masaren %0,2ko igoera egitea.”

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen. Udal langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Bigarrena.- %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar.

Hirugarrena.- Soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimentzea, 2017ko ekitaldiko aurrekontuan superabita edukirik. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikuluaaren laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez (zentzu honetan, zenbatekoak Elkarkidetza pentsio-planean aportazio bidez bideratuko da igoera). Zentzu honetan ere, 2016. ekitaldiko igoerarekin batera proposatutako gomendioaren arabera, zenbateko horri, %0,6ko igoera erantsiko zaio.

Laugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

5.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEAN LAGUNTZA BANAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia onartu zuen.

Horren arabera, onartutako araudian jasotako baloraketaren erizpideak jarraituz, 2017ko ekitaldiari dagokionez, 4.750,00 euro banatuko ziren eskatutako baldintzak betetzen zituzten erakunde ez-gubernamentalaren artean.

Honela, egindako eskariak aztertu eta baloratu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Lantaldeak egindako proposamena jarraituz, Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Udalak onartutako “Herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia” jarraituz, honako modu honetan banatzea 4.750,00 euroko dirulaguntza:

Izaki: Asociación Chernobil	1.750,00 €
Mundu Solidarioa Helburu	750 €
Taupadak GGKE	750 €
Elikagaien bankua	500 €
Saharar haurraren etorrera	1.000,00 €

GUZTIRA

4.750,00 euro.

Era berean adierazten da, honako ohiko beste laguntzen banaketa egingo dela:

Parrokia: 800,00 euro.

Zegamako odol emaileak: 450,00 euro.

Aitzgorri Jubilatuen Egoitza: 1.500,00 euro.

Bigarrena.- Erabaki hau adierazitako erakundeei jakinaraztea laguntzen araudia ezarritakoaren arabera honako hau bete beharko dutela adieraziz:

“ Dirulaguntza justifikapena:

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Programa burutzeko arduradun izendatuko pertsonari dirua transferitu zaiolako frogagiria.

b) Aurrera eramandako programa edo iharduerari buruzko Memoria xehea.

c) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren eraberako gastuen jatorrizko egiaztagiririk edo fotokopia konpultsatuak.

Justifikatzeko epea:

Aurreko arikuluan exijitutako agiriak gehienez honako epe hauetan aurkeztuko dira:

a) Aurreko artikuluan lehenengo ataleko egiaztagiria, dirulaguntza jaso eta 2 hilabeteko epean.

b) Hurrengo atalekoak (b eta c) eskatutako egiaztagiririk, iharduera subentzionatua bukatu eta 3 hilabeteko epean gehienez.

Ez betetzearen suposamendua:

Agindu honetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak, hura berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deusezteak, gutxitzea edo itzularaztea.

6.- KULTUR ETA KIROL ELKARTEEN ARTEAN DIRULAGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak, Kultura Batzordeak udalerriko Kultur eta Kirol Elkarten artean dirulaguntzak banatzeko, onartutako prozedura eta programaren arabera, 2017. urteari dagokionez, Kultur Elkarten artean 5.539,50 euro eta Kirol Elkarten artean 9.250,00 euro banatu direla adierazten da, jarraian adierazten denaren arabera:

Kultur Elkarteak

Orkatz Abesbatza 3.819,50 euro.
Gazte Herexa 1.720,00 euro.

Kirol Elkartek

Amezti 1.620,00 euro.
Elkartu Nahi 1.970,00 euro.
Aizkorri F.T. 2.070,00 euro.
Tartalo Etxe P.E. 1.620,00 euro.
Karraztarro 1.970,00 euro.

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2017. urteko ekintzengatik herriko Kirol eta Kultur Elkarteen artean dirulaguntzak banatzeko prozedura eta irizpideak jarraituz, eta horien ondorioz egindako dirulaguntzaren banaketa onartzea.

Bigarrena.- Dagokion gastua onartzea, 2018ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.481.03.334.10.2018 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau adierazitako Elkarteei jakinaraztea.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 04/0618 erabakia, ekainaren 19koa, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, utarrila-maiatza bitarteko gimnasioko kuoten likidazioa bideratuz.
- 05/0618 erabakia, ekainaren 20koa, Maite Arrieta Gorosperi, etxeko itxidura bidegorriko lanak egin aurreko egoerara egokitzeko baimena emanaz.
- 07/0618 erabakia, ekainaren 20koa, zenbait fakturen ordainketa-erlazioa onartuz.
- 08/0618 erabakia, ekainaren 27koa, 8228 fakturen erlazioa onartuz, guztira 2.784,62 eurokoa.
- 09/0618 erabakia, ekainaren 27koa, Lurkide Hondalanak S.L. enpresak, Olaberriko indusketa selektiboaren planaren barnean aurkeztutako Segurtasun eta Osasunari buruzko plana onartuz.
- 010/0618 erabakia, ekainaren 29koa, udal langileen nominen ordainketa-erlazioa onartuz.
- 011/0618 erabakia, ekainaren 29koa, udal langileen nominen ordainketa-erlazioa onartuz.

- 012/0618 erabakia, ekainaren 29koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa-erlazioa onartuz.
- 01/0718 erabakia, uztailaren 4koa, Maderas Garmendia S.L.k jarritako fidantzak itzuliz.
- 02/0718 erabakia, uztailaren 5koa, 8320 fakturen erlazioa onartuz, guztira 114.753,24 eurokoa.
- 03/0718 erabakia, uztailaren 10ekoa, M^a Carmen Aramendi Agirrerri egurra ateratzeko lanak bideratzeko Zuloaga bidea erabiltzeko baimena emanez.
- 04/0718 erabakia, uztailaren 10ekoa, Elorri Rivas Larreari begirale ikastaroaren zenbatekoa ordainduz, udaleku irekietan praktikak egiteagatik.
- 05/0718 erabakia, uztailaren 11koa, Ugarte Zelai behean kokaturiko 10 zenbakia duen garajearekiko Udalarari dagokion eroslehentasun eta atzera egite eskubideari uko eginez.
- 06/0718 erabakia, uztailaren 12koa, zenbait ordainketen erlazioa onartuz.
- 07/0718 erabakia, uztailaren 17koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko deialdia hutsik geratu dela jakinaraziz.
- 08/0718 erabakia, uztailaren 18koa, 15 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 54.713,46 eurokoa.
- 09/0718 erabakia, uztailaren 19koa, 8488 fakturen erlazioa onartuz, guztira 46.348,67 eurokoa.
- 010/0718 erabakia, uztailaren 20koa, Ione Berasategi Bengoetxeari leihoak aldatzeko baimena emanez.
- 011/0718 erabakia, uztailaren 20koa, Juan Arakama Azurmendiri, barne lanak egiteko baimena emanez.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

- Alkateak, administrari lanpostua betetzeko bideratzen ari den prozeduraren egoera azaltzen du. Zentzu honetan ere azaltzen du, Oihana Zubizarreta amatasun egoera dela eta, bajan diharduen bitartean ordezko bezala, Ainara Esnaola jarraituko duela lanean.
- Urko Gomez Ropón zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, frontoiko zoruan zuloa egin dela. Alkateak esaten du jakinarren gainean dagoela, eta ziur asko, ehiz ferian egin zela kaltea. Bilkurakideak gaiaz eztabaidatzen dute.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) kale-izenen aldaketa prozeduraz galdetzen du. Alkateak adierazten du tramitazioa bideratzeaz dagoela.

Zentzu honetan, idazkariak adierazten du, burutu behar diren aldaketak ugariak direla kontuan izanik, administrari lanpostua betetzen denean hasteko asmoa dagoela.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO